Autoritarismoa eta gerra
Nazioarteko ordenaren trantsizioaren adierazle



Ashkan Forouzani, Unsplash

MUNDUARI SO 2023

iratzar FUNDAZIOA

Aurkibidea

I. Marko Orokorra 5

1. Trantsizio geopolitika luzea 5
2. Gerra, mundu sistema kapitalistaren seinale 8
3. Demokraziaren galerak 12

II. Ikusmirak 14

1. Ikusmira 1: Krisi ekosoziala: Eraldaketa produktiboaren beharra da gakoa 14
2. Ikusmira 2: BRICS, Hegoalde Globalerako ezinbesteko erreferentzia 17
3. Ikusmira 3: Migrazioa, "Oihanaren" eta "Iorategiaren" artean 19
4. Ikusmira 4: EB, maizterren integrazio egitura 22
5. Ikusmira 5: Zein da estaturik gabeko nazioen papera nazioarteko ordenaren baitan? 25

III. Bukatzeko hainbat ideia 28



Jeff Kingma, Unsplash

MUNDUARI SO 2023

Sarrera

Iratzar Fundazioan, urtero bezala, Euskal Herritik munduari so egin diogu. 2023. urteko gertakizunak aletu, aztertu eta, jarraian, 2024. urtea izan daitekeenaren hurbilpena egin dugu. Ariketa horretan, honako aldagai hauek gidatu gaituzte: batetik, eskubide ororen defentsak, herrien burujabetzak, negoziazio politikoak, eta interes eta balioen arteko orekak osatzen duten lanabes kutxak; eta bestetik, gure nazio askapen prozesuaren beharrek eta baldintzapenek. Talaia horretatik jorratu ditugu Ukrainako inbasioa, Palestinako genozidioa, klima larrialdia, eta elkartasunerako eta kooperaziorako mugimenduak. Halere, gertakizun horiek aztertu beharrean, horiek sortzen diren marko globala definitzen saiatu gara, marko horretan gauzatuko delako 2024rako aurreikus dezakegun testuinguru geopolitikoa.

Aurten, gainera, *Munduari so* formatu berriarekin dator: sarrera batek irekiko du gure irakurketa, marko orokorra aurkeztuz. Ondoren, hainbat erronkatan jarriko dugu ikusmira: krisi ekosoziala, Hegoalde globalaren presentzia eta BRICS, migrazioaren auzia, Europaren krisia eta estaturik gabeko nazioen giltzak.

Bestalde, 2023ko ibilbidea ezaugarritu duten eta 2024. urtea izango denera hurbiltzen lagunduko diguten hainbat kontzeptu ekarriko ditugu akordura: amerikar hegemoniaren gainbehera, krisia(k), Hegoalde globalaren eragin gaitasuna, gerra (k), nazioarteko komunitatearen arkitekturaren agorpena, eta paradigma eraldatzaileen indartzea.

Nazioarteko ordenari buruzko irakurketa honetan, galdera bat izan dugu biraka: munduko gizateriarentzat eskubideak ugaritu al dira 2023. urtean? Erantzuna ondorioetan aurkituko duzue.



Stijn Swinnen, Unsplash

I. Marko orokorra

Trantsizio geopolitiko luzea

II. Mundu Gerratik ezagutzen genuen nazioarteko orden neoliberala amaitu da; ez da ezagutu genuen bera izango. Baina, inor tronpatu ez dadin, esan behar dugu orden neoliberala ez dela desagertu. Mundu sistemaren **boterearen birbanaketa** fase sakon bat bizitzen ari garela esan daiteke. AEB, botere kapitalistaren etengabeko kontzentrazioaren lider luzaz izan ondoren -hori da, hain justu, potentzia liderra izateko faktorerik inportanteena-, botere ekonomikoa eta militarra galtzen ari da, **Asia-Pazifikoruntz mugitu** delako.

Mugimendu horrek mundua berrezaugarritu du; eta 2008ko ekonomia eta finantza krisiaren eskutik, hegemonia amerikarraren agortzea azaleratzeaz gain, orden neoliberalak sustatu zuen nazioarteko arau eta arkitektu-

raren gainbehera ere gauzatzen ari da. Baina esan behar da **hegemonia amerikarraren gainbehera** mendebalde osoarena ere badela, finean, eredu neoliberala eta paradigma anglo-saxoniarra ordezkatzen dituzten guztiena delako. Izan ere, mundu globaleko aldaketa geopolitikoak, estatu nazioan baino gehiago, mundu sistemaren testuinguruan ulertu behar dira, sistemikoak direlako.

Mendebalde kapitalistaren munduaren gainbeheraren adierazlea hasten da potentzia liderrak **finantza eta kasino ekonomiaren hedapena**ri ekiten dioenean (2008ko finantza krisia horren lekuko), kreditu jardueretan eta espekulazioan oinarrituta eta ez ordea, ekoizpen eta merkataritzaren zabalpena handiagoan. Honetaz gain, AEBn hegemoniaren gainbehera **bi esferatan** nabarmentzen ari da: potentzia liderrak estatuen arteko ***konpetentzia*** erdigunera eraman duelako (AEB eta Txinaren arteko lehiak ez du etenik, teknologian, automozioan, azpiegituretan, eguzki plaketan...). Eta estatuen arteko ***kooperazioa*** bermatzeko adostu diren lege multzoa eta instituzioak ezbaian jarri direlako (COVID-19aren kudeaketa, Ukrainako gerra, Palestinaren kontrako genozidioa, Saheleko egoera belikoa, migrazioa...). (Ikusi Ikusmira 3)

AEBn botere hegemonikoaren galeraren beste adibide bat da **Hegoalde globaleko potentzia berrien agerpena**, horrek lehen aipatu dugun botere birbanaketa exijitzen duelako.

Jakina da 2030rako munduko lau ekonomia nagusietatik hiru (Txina, India eta Indonesia) Hegoalde globalekoak izango direla; eta 2050ean,10 ekonomia handienetatik zazpi Hegoalde globalekoak. Ekonomia horiek munduko BPGaren % 55 ordezkatuko dute, eta munduko gune demografiko izaten jarraituko dute. Bestalde, klase ertain indartsuenetako bat izango dute (biztanleen % 80). Erabakiguneak ere Indo-Pazifikoan izango dira; Pekinen, New Delhin hartuko dira.

HEGOALDE GLOBALAREN GARAIA

Zalantzarik gabe, ikuspegi geopolitikotik, Hegoalde globala egon badago. Ez da bat eta bakarra, kolonizaturiko gorputz politiko heterogeneoa izan da; eta orain, estatu egituretatik, baina, era berean, zenbait espazio politiko eta sozialetatik, euren burujabetzen aldeko borroka nazionalak eta globalak antolatzen hasi dira. Besteak beste, honako gai hauek dituzte hizpide: kate globalen deskonexio partziala, estatuak errentez jabetzearen beharra, espekulaziozko kapitalari zergak kobratzea, ondasun eta zerbitzu estrategikoen nazionalizazioa... Hegoalde globalak, aberastasunaren banaketak ez ezik, subiranotasun eta identitate eskaera handitzeak ere bultzatzen ditu. Latinoamerikako, Afrikako, Ekialde Hurbileko eta Asiako herrialdeak aukera alternatiboak abiatzen ari dira, mendebaldeko instituzio eta agendatik kanpo. BRICS da horren adibide bat. Dinamika interesgarri bat, dudarik gabe, baina kapitalismoaren aurrean Hegoaldeko aliantza hau osatzen duten hainbat aktorek eredu askatzaile eta antagoniko izatetik urrun dute. 2023Ko abuztuan Johannesburgon egin duten gailurra da horren adibidea (Ikusi Ikusmira 2).

AEBak euren botere ekonomikoa, kulturala eta belikoa erabiltzen ari dira Hegoalde globalean aldebiko harremanak eta posizio geopolitikak lortzeko. Era horretan, Japonia eta Australia, Asiako hego-ekialdeko herrialdeak, ahaleginaren helburu izan daitezke; ahaztu gabe lankidetzan ari direla Indian, eta Erdialdeko Asian eta Afrikako lurralde batzuetan, Nigerian adibidez. Halaber, Mon-

roe doktrinaren 200 urte bete diren honetan, AEBek eurekin lerra ditzakete Hego Amerikan Peru, Ekuador, Salvador eta Argentinako estatuak; lurralde horretako ekonomia, finantza eta komunikabideen elitearen bidez, espazio horietara sarrera kualifikatua dute. Bestela, eta zailtasun nabarmen eta oztopoez gain, Washingtonek interes berezia izan dezake BRICSaren hedapenean sartu ez direnengan: Mexiko, Turkia eta Nigeria. Baina ez du erreza izango.

Potentzia liderraren ahalegin guztien gainetik, Hegoalde globalak **mundu sistemaz ulerkera** ezberdina du. Botere aliantza berriak ehuntzen ari da, hierarkia eta oreka tradizionalei aurre egiten dietenak. Ikusteko dago, ordea, hegemonia berri baten atarian gauden edo, gaur eguneko mundu ordenaren barruan, presentzia global handiagoa eta estatuen arteko artikulazio diferente bat erdiestea helburu duen. Izan ere, egia da zalantzan jartzen direla AEBen jarrera hegemonikoa eta horretan oinarritzen diren gobernantza-egiturak; baina badirudi aldaketa horiek potentzia liderra ahuldu eta beste eragile batzuk ikusarazteko saiakera izan daitezkeela, eta ez eredu antagoniko bat sortzeko ahalegina. Mugimenduak eta denborak norabidea zehaztuko dute, eta gu adi izango gara.

Bestela, Hego global horretan, **Txina** da AEBen nagusitasuna zalantzan jartzeko gaitasuna eta estrategia ekonomikoak izan ditzakeen potentzia bakarra. Gainera, espazio horretan ez da potentzia neokolonial gisa ikusia. Bere politikek eta jokabideek oso helburu argiak zehaztu dituzte: mundu sistemaren barruan erreformak aldarrikatzea, edota *batura zero* paradigmatik aldentzen diren narratiba zein politika ekonomikoak bideratzea, eta win-win paradigmara hurbiltzen dena eskaintzea.

Era berean, Txinako gobernuaren logika autoritario eta patriarkala herritarrekin sortzen ari den talka ahaztu gabe, esan behar da Pekinek misio argia jarri diola diplomazia eta kanpo politikari: “Helmuga komuneko komunitatea” lortzea; eta horrek lurraldeen arteko lankidetza diferente bat ekarri du. AEBek ez bezala, Txinak gerra eta gatazkarekiko jarrera hotzagoa agertzen du; badaki bere kultur eredua ez dela esportagarria, eta ez dago gune politiko-militarrik bere kanpo politika determina dezakeenik.

Ba al du orduan Txinak gaurko hegemoniari aurre egin diezaiokeen paradigma ideologiko diferente bat? Txinak kapitalismoaren barruko paradigma kudeatzaile diferente bat eskaintzen du, baina gaurko sistema kapitalista globalari errotiko kritika egin gabe. Hori egiteko, kanpo politika diferente bat egitearekin batera, barne legitimazio demokratikoa beharko bailuke. Estatuaren legitimazioa ezin delako etorri ekonomiaren kudeaketa onetatik eta mugak izan ditzakeen datu makroekonomiko onetatik bakarrik. Bere eredua estatu kapitalismoarena da gaur-gaurkoz.

Ez dakigu nazioarteko ordena bipolarra edo mutipolarra izango den, ez eta bloketan edo diferenteen arteko aliantza eta mekanismoetan oinarrituko den. Dakiguna da AEB gainbeheran dagoela, eta Washingtonek Txina jomugan duela; eta bizi dugun “argi-ilun horretan sortzen direla munstroak”.



UX Gun, Unsplash

Gerra, mundu sistema kapitalistaren seinale

Rosa Luxemburgek ederki azaldu zigunez, militarismoa kapitalaren metaketaren fase guztiekin eskuz esku joaten da kapitalismoaren historian. Oraingo fase historiko honetan ere, segurtasun belikoak eta militarismoak AEBen kanpo politika ardaztu dute, eta ondorioz, lurraldeen militarizazioa eta gerra hedatu da Afrika luze-zabalean, eta Ekialde Hurbilean; bi lurraldeetan lurraren eta baliabideen kontrola erdigunean izanik, baina ahaztu gabe kapitalismoaren muga materialaren krisia gerrarekin bat datorrela (Ikusi Ikusmira 1).Hona hemen hiru datu, esaten ari garena argitzeko[1]: 2023an, munduko gastu militarra, gutxienez, 2,24 bilioi dolarrekoa izan

1. Iturria SIPRI: https://www.sipri.org/sites/default/files/MILEX%20Press%20Release%20ESP.pdf

da. Hazkunderik handiena Europan izan da, urtebetean % 13 haziz. Munduan gastu militar handiena duten herrialdeak AEB eta Txina dira. Bien artea gastu militarraren erdia ordezkatzen dute. Eta AEB bakarrik, zenbat gastatzen du? (Txinaren aurrekontua AEBren herena besterik ez da. Eta AEBtakoa hurrengo hamar estatuen batuketa baino handiagoa da.

Potentzia liderra izaten segitzeko, AEBak definitu duen kanpo eta segurtasun politikaren erronkarik handiena ez da potentzia berrien mundu ulerkera ezberdinari aurre egitea, ezpada "mehatxu estrategikoa"-ri aurre egiterakoan definitu duen bide-orriarekin aliatuek bat egitea. Zeregin horretan duen aukerarik handiena Mendebaldea osatzen duten aktoreak biltzea eta bere narratiba zabaltzea delako.

Testuinguru horretan, 2023. urtean, bi momentuk arreta piztu digute: Ukrainako gerraren testuinguruan, NATOren kontzeptu estrategikoaren eragina. Eta 2023ko urtarrilean, AEBek Japoniarekin eta Hego Korearekin batera osatutako Hiru Aldeko Elkartea.

Lehenak, NATOk zehaztutako etorkizuneko ingurune desafiatzaile estrategikoen artean Txina sartu zuen lehen aldiz -Errusia eta trantsizio teknologikoarekin batera-, mehatxu sistemikotzat joz. Horrek, Mendebalde neoliberalaren eta Txinaren arteko desakoplamendua deitu denaren joera nabarmentzen zuen, eta lehiaren tamaina definitu. Bestela esanda, AEBk munduko hegemon[2] izaten segitzeko Txina euren esfera politiko eta militarretik at behar du. Lehen esan dugun bezala, Asiako erraldoia bere eragina munduan garatzen eta hedatzen ari delako, Zeta korridorearen bidez eta beste proiektu sozioekonomiko batzuen bidez.

Bigarrenak, Hiru aldeko Elkarteak Asiako Iparraldearen kontrola eta eskualdearen militarizazioa dakar, eta horrek helburu zehatzak ditu: eskualdea bi bloketan banatzea, Txinaren urteetako lankidetza ekonomikoa Asiako eskualdean zapuztea eta, bereziki, Taiwanen gatazka areagotu eta AEBen posizioa indartzea.

Gauzak horrela, Ukrainako gerra oso adierazgarria da. AEBen defentsa estrategikoaren lehen urratsa Europa eurekin lerrokatzea izan da. (Ikusi Ikusmira 4) . Era horretan, gerrak utzitako ondorio deigarri bat izan da Txinako Zetaren korridorea[3] moztea. Gerrak Txina eta Errusia alde batean, eta beste aldean Europa -batik bat Alemania- uzten ditu, eta Euroasia eskualdea lotzeko eta egituratzeko asmoa oztopatzen du. Hori dela eta, AEBek Europaren gaineko botere militarra eta politikoa mantentzen dute, europar herrialdeen BPGaren % 2 gastu militarra izatera behartuz, politika eta inbertsio sozialen kalterako.

Haatik, NATOk eta AEBek Errusiaren kontra abiatutako zigor ekonomikoek eta diplomatikoek ez dute Hego globaleko herrialde gehienen aldetik segidarik izan. Aitzitik, zigor horiek eragin zuzena izan dute herrialde horietako askotan. Hidrokarburoen, zerealen eta hazien mundu-merkataritzan izandako gorabeherek Afrikako hainbat lurraldetan goseteak areagotzea eta bizi baldintzak kaskartzea ekarri dute. Era berean, Mendebaldeko Blokeak Errusiaren aurka egindako gerra ekonomikoan, petrolio eta gasaren bidezko diru sarrerak etetea izan da helburu nagusia. Errusiaren eta Europaren arteko harreman komertziala etenda, europar aliatuak gasa berari erostera behartzen zituen. Zigor

2. Hegemon edo munduko potentzia liderra
3. Zetazko korridorea birkonfigurazio geo-ekonomikorik handiena da. XVIII mendetik kapitalaren eta merkantzien zirkulazio-fluxua nagusiak aldatzea du helburu .Proiektu erraldoiak beste xedeen artean Txina, Errusia eta Alemania konektatzea da eta Euroasia eskualdea indartzea. AEB ardatz geostrategiko honetatik kanpo geratuko litzateke.

ekonomikoen bidez, eta behin Errusia zigortua, Washingtonek petrolioaren merkatua eta prezioak kontrolatu nahi izan zituen, baina gauzak ez zitzaizkion ondo atera. Errusiak beste merkatu batzuk bilatu zituen, eta LPEEko liderra den Saudi Arabiarekin liskartu zen. Gogoratu behar da 2023ko martxoan Txinaren, Iranen eta Saudi Arabiaren arteko harremanak normalizatzeko akordio baten bitartekaria zela.

GERRA ETA GENOZIDIOAREN ASKOTARIKO INPLIKAZIOAK

Ikusi ahal izan dugunez, urte honetan mundu sistemaren aldaketak gatazka eta tentsio geopolitikoak areagotu baino ez ditu egin: Ukraina, Karabakh Garaia, Yemen, Etiopia, Kongo, Mali, Burkina Faso, Sudan, Myanmar, Kurdistan..... Egonkortasun eza, ***gerra nagusi***, armen lasterketa. Gerraren muturreko adierazpena genozidioa da, gizatasunaren ukazioa; baina, era berean, genozidio hori sostengatzen duen jendartearen suizidio morala. Egoera hori Palestinan ikusten ari gara.

Palestinako sarraskiak, inoiz ez bezala, Mendebaldearen eta Hego globalaren arteko arraila zabaldu du, baita mendebaldeko metropolietan ere; Alemania eta gisako beste zenbait herrialdetan Palestinarekiko elkartasuna debekatu eta kriminalizatu egiten delako. Hegoaldeko oroimen historikoak gogora ekarri du Gazan kolonialismoak "zibilizazioa" zabaldu zuela; eta palestinarrek zibilizazio horretan tokirik ez izanik, barbaroak zirela, euren lurraldean zeuden barbaroak. Behin hori eginda, deshumanizatzea izan da hurrengo urratsa, eta hortik aurrera, palestinarren kontra dena zilegi bilakatu da: hilketa masiboak, etxeen eta oinarrizko instalazioen ausiabartza, ekozidioa, osasun arazo lazgarriak, heriotza ekonomikoa... AEBek eta Mendebaldeak pentsa dezakete lurralde horretan bizi den segurtasun arazoa okupazioaren eta eskubideen ukazioaren bidez konponduko dutenik? Gure ustez, berehalako su etena behar da. Nazioarteko komunitatea, instituzioa eta jendartea ezin gara sorgor geratu. Okupazioa eta genozidioa geratzea da soluziobidea bakarra, Palestinak estatu bat izateko eskubidea duelako, "From the river to the sea"[4]

Gerrak, beraz, **nazioarteko politika determinatzen du**; Ukrainako inbasioaren kasuan gerrak, eta Israel Palestinaren kontra egiten ari den genozidioak, biek ala biek inplikazioak izan dituzte lurralde horietatik at. Israelen kasuan, Ekialde Hurbileko eskualdean sorturiko ondorioak agerikoak dira, Iranen, Sirian, Egipton, Saudi Arabian eta Libanon, baina baita AEBen kanpo eta defentsa politikan ere. AEBko eta Israelgo gobernuen arteko sostengu politiko eta militarra ezagunak dira. Sostengu hori gabe, Israelek nekez egin zezakeen egiten ari den sarraskia. Ordena hegemonikoaren defentsaren parte da. Israelek AEBk behar ditu, eta AEBek Israel behar dute: eskualdean hegemonia amerikarraren interesen alde egiteko, hegemonia kultural neoliberala zabaltzeko, eta mundu merkataritzako itsas bideak bermatzeko. Era berean, AEBetako **barne politikan** lobby sionistaren eragina inportantea da, are gehiago hauteskunde testuinguruan. Europa ere lerro honekin bat dator,batzuetan modu pasiboan baina konplize bilakatzen eta besteetan oso modu aktiboan, europar institu-

4. Lelo politiko horrek Palestinako lurraldetasuna biltzen du. Hain zuzen ere, Jordan Ibaitik Mediterraneora doan lurraldea.

zioeatko ordezkariak horren adibidea direlarik. Bestalde, gerrak nagusiki militarrak badira ere, eta horien finantzen, ekonomiaren eta geopolitikaren erpinak ezagunak badira ere, esan daiteke azken urteetan **narratiben gerrek** espazioa irabazi dutela, eta ondorioz, Mendebaldeko botere mediatikoek ez dutela informazio ingurune globala guztiz menperatzen. Horrek narratiben arteko talka ireki du, eta Ukrainako gerra eta Palestinakoa ere horren adibideak dira. Arau bikoitza nabaria da Gazako genozidioa mediatikoki lantzerakoan, eta Ukrainakoarekin alderatzean. Hala nola, Palestinari lotutako *fake news*-en erabilpen masiboa ikusten ari gara, barbarizazio estrategia gisa.

Botere hegemonikoaren gainbehera garaian, gerra areagotzeak potentzia liderrari eskatzen dio lehentasunak zehaztea, eta ondorioz, bere ahuldade galanta mugatzea. Washingtonek aliatuak lehenetsi beharko ditu Asian, Ekialde Hurbilean edo Europan. Lehentasun horien isla da AEBek Karabakh Garaiko gatazkan hartu duten bigarren mailako papera. Beste adibide bat da Mendebaldeko Afrikatik Frantzia kanporatua izatean mantendu duen begirale jarrera. Kontsentsu Atlantikoa sustatu eta berarekin bat egiten ez duena sistema politiko hegemonikoaren etsai eta botere politiko mediatikoaren jomuga (narratiba neoliberala) bilakatzen da.

Azkenik, gerrak herrialdeen barne politika eta nazioartekoa determinatzen baditu ere, bietan eragina duen nazioarteko instituzioen ezintasuna azpimarratzen du; ondorioz, ordena internazionalaren haustura agerian utzi ditu. Palestinaren kontrako genozidioa dugu horren adibiderik gertuena, eta aipatzen ari garenaren isla izan da Nazio Batuek genozidioa geratzeko ageri duten ezintasuna. Asanblada Orokorraren aldeko erabakia lortu bazen ere, edo erakunde horretako idazkari orokorra den Antonio Guterresek su etenaren aldeko deia zabaldu arren, Segurtasun Kontseiluan AEBetako ordezkariak kontra bozkatu zuen, eta duen beto eskubideak ezetza nagusitzea ekarri zuen.



Artur Shamsutdinov, Unsplash

Demokraziaren galerak

Testuinguru belikoak are gehiago higatu ditu nazioarteko zuzenbidea eta instituzioak. Arreta berezia merezi du **Nazio Batuen Erakundea**ren egoerak. Inoiz baino premiazkoagoa da haren erreforma eta berrikuspena. **Setiatuta eta kuestionaturik** dago, barneko botere desorekengatik, inertzia burokratikoagatik eta, gero eta gehiago, presio ikaragarriengatik.

Alde batetik, botere ekonomikoen interesek galarazten dute klima larrialdiak beharko lituzkeen estatu politika mankomunatuak, neurriak eta baliabideak artikulatzea. Bestalde, erakundearen barruan dauden beto eskubideak eta lubaki geopolitikoek ez gai bilakatzen dute giza eskubideak eta askatasun politikoak babesteko nazioarteko arau egitura. Ukrainako eta Palestinako gatazka

belikoak denbora berean izateak, kontraesanak areagotu eta ezintasuna agerian uzten du. Genozidio bat dago martxan, eta ezin dute gelditu.

Estatuen arteko ordezkaritzen ponderazio ezberdinak indargabetu egiten du Nazio Batuek beharko luketen izaera multilaterala, bai eta interes orokorra defendatzeko gaitasuna ere.

NBEn ibilbidea kritikoa bada ere, komeni da gogoratzea haren itunek, gutunek eta ebazpena askok barnebiltzen dituztela nazioarteko politika justua gidatu behar duten balioak eta adostasunak. Horregatik, mundu osoko gizarteak eskatzen ari dira itun horiek errespetatzeko, gerrak gelditzeko eta bake justu eta iraunkorra negoziatzeko. Eta ildo horretan interesgarria izango da 2024ko irailerako erakunde horrek antolatu duen konferentzia, sistema multilateral baterantz abian jartzeko.

Ikusten ari garenez, gainbeheran dagoen hegemonia atlantikoaren liderrak munduko norabidea zehazten segitzen du. Oztopo handiz, baina, era berean, bortizkeria eta basakeria handiz. Horren aurrean, beste paradigma batzuk agertzen ari dira. Horietariko batzuk **askapen koordenatuetan kokatzen dira**, Afrikan, Latinoamerikan, Asian, baina baita Europan ere. Lurralde horietako mugimendu sozialek, feministek eta hainbat gobernuk nazioarteko ordena, arauak eta instituzioak Mendebaldeko merkatu logikatik eta *WASP*[5] deritzon kultur hegemoniatik aldentzea dugu helburu. Bizitzen merkantilizazioaren eta munduko % 5ek metatzen duten kapitalaren aurrean, bizitzak eta publikotzat ulertu dugun oro denen zerbitzura jartzeko.

Beste batzuk, ordea, **autoritarismoaren eta bazterkeriaren koordenatuetan** kokatzen dira, kapitalaren metaketa bideratuz eta dagoen hegemonia kulturala eta neoliberala onartuz. Eta badaude horiengandik gertu dauden beste batzuk ere Hegoaldean zein Mendebaldean, eta min materialei erantzun identitarioak ematen saiatzen direnak. Eskuin muturraren eta faxismoaren defendatzaileak dira; kalean daude, baina ikusten ari garen bezala, gobernuetan eta instituzioetan tokia hartu dute: Netanyahu, Milei, Meloni...

Zaila zaigu jakitea eragile eta mugimendu autoritario horiek nola artikulatuko diren kapitalarekin, baina gogoan izan behar dugu suntsipen pribatizatzaile eta indibidualizatzailearen ondorioz indartu direla. Arrazionaltasun neoliberalean oinarritzen dira, eta hura berrekoizten laguntzen dute.

Ziklo autoritarioari aurre egiteko, egungo garaiotan, ezinbestekoa da kapitala estrategiari aurre egitea. Azpimarratu behar da, oro har, ezker mugimendu sendoak dauden herrietan, eta mugimendu feminista indartsua duten lurraldeetan eskuin muturraren egoera ahulagoa izaten dela. Beste gauza bat da, ordea, eskuin muturraren balio lotien presentzia, autoritarismoa eta agertoki belikoak hazirik emankorrena direlako balio horiek elikatzeko, nahiz eta ez diren beti aktibo. Finean, eta argi-ilun horretan munstroak sor ez daitezen, guk hautatu dugu gure gorputz eta lurraldeak (Ikus Ikusmira 5) deskribatu dugun askapen koordenatu horietan kokatzea.

5. WASP/ gizon zuria anglosaxoia eta protestantea; berez, ekonomia maila handiko estatubatuarren taldea, britainiarren ondorengoak eta erlijio protestantekoak, historikoki AEBetan neurriz kanpoko botere sozial eta ekonomikoa izan dutenak.



NOOA, Unsplash

II. Ikusmirak

Ikusmira 1: Krisi ekosoziala

Eraldaketa produktiboaren beharra da gakoa

Hazkunde amaigabea ezinbestekoa duen ekoizpen eta kontsumo eredu kapitalistak krisi ekosozial larria sortu du. Sistema kapitalistaren oinarria den garapen eredua da zalantzan jarri dena: natur baliabideen eta erregai fosilen neurrigabeko ustiapenean oinarritutako sistema ekonomikoa.

Aspalditik ari gara planetaren muga fisikoak gainditzen. Azken ikerketen arabera, pertsonak bizitzeko ezinbestekoak diren planetak dituen 9 mugetatik 6 gainditu ditugu jada[6]. Trantsizio ekologiko sakon bat martxan jarri ezean, giza espeziearen (eta beste espezie askoren) biziraupena eta planeta bera ere jar dezakegu arriskuan.

Krisi ekosozial horren espresio gorena bizi dugun krisi klimatikoa da, bere gordintasunean. Muturreko gertakari klimatikoak, horiei loturiko migrazio prozesuen areagotzea, elikagaien krisia (sozialki era desorekatuan

jasango diren ondorioak horiek guztiak)... eguneroko ogia bilakatu dira. Horrek, erabat ezinbestekoa eta urgentea bilakatzen du deskarbonizazio prozesu bat abiatu beharra, eta horretarako nahitaezkoa da eredu produktiboaren eraldaketa. Eraldaketa produktibo horren ardatz nagusietakoa trantsizio energetikoa izango da, erregai fosilak erretzetik energia berriztagarrien erabilerara igaro beharko garelako abiada bizian. Dena den, azpimarratzekoa da prozesu horretan erregai fosilen lobbyek, enpresa energetiko handiek izugarrizko pisua dutela, eta trantsizio horren forma eta denborak determinatzen ari direla[7].

Horrek, termino geoestrategikoetan ondorio argi bat uzten du: errekurtsoen (energia, mineralak...) kontrol estrategikoa fase geopolitiko honetako helburu nagusienetako bat bilakatuko da. Horregatik, krisi ekologikoari ematen zaion erantzuna trantsizio geopolitikoko indar harremanek ere determinatuko dute. Horren adibide da Dubain egin berri den COP28 NBEn klima aldaketari buruzko konferentzia. Bertan, petroliodun herrialdeek (lobbyen parte hartze indartsuarekin) euren indar posizioa baliatu dute erregai fosilen alboratzea erabat lausotzeko, eta ez da horretarako inongo epemuga eta neurri zehatzik adostu.

Era berean,petrolioa kontsumitzen duten herrialdeek, ez dute inolako neurririk hartu kontsumoa mugatzeko. Nazioarteko Energia Erakundeak aurtengo prebisioetan argi dio kontsumoa hazten jarraituko duela. Horrez gain, azpimarratzekoa izan da bai AEBen bai Txinaren jarrera apala konferentziarekiko. Beraz, faktore ezberdinengatik Parisko konferentzian ezarritako helburua (mende amaieran munduko batez besteko tenperaturaren igoera 2ºCtik beherakoa izatea, eta ahal bada, 1,5ºCtan geratzea, industriaurreko maila oinarri hartuta) betetzetik oso urrun gaude, deskarbonizazio prozesuan egin beharreko aurrerapausoak ez baitira egiten.

Sistemak egonkortzeko hazkunde ziklo berri bat beharko lukeen unean ezinezkoa du hori lortzea, kapitalismoak muga biosfisikoekin talka egin baitu. Beste era batean esanda, kapitalismoak “mugen” krisia bizi du. Eta kontuan izan behar dugu krisi horren kudeaketa autoritario bat jarri dela martxan. Energiaren, errekurtsoen (horietako asko trantsizio energetikorako ezinbestekoak)... kontrol estrategikoa izateagatik gerrak hedatzen ari dira. Trantsizio energetikoa gerra logikari lotuko zaio horrenbestez. Horren adibide da Ukrainako gerraren faktore garrantzitsuenetako bat gerra energetikoa izan dela (Nord Stream, Europak energia iturri alternatiboak bilatu beharra, santzio ekonomikoak errusiar gasa kontsumitzearren...).

Gainera, gerra koloniala bilakatu da kapitalismoaren mugen krisiari erantzuna edo konponbidea (Mendebaldeko Afrikako gatazkak horren adibide). Horrez gain, herrialdeen barne politikan errekurtsoen disponibilitate mugatuaren aurreko erantzuna ekofaxismotik artikulatzea oso posible da: jendarteen segregazioa, autoritarismoa, errekurtsoen banaketa desorekatua izango dira aplikatzen errezeta erraza.

Gainera, esan bezala, krisi klimatikoa hedatzen doan heinean sortuko diren ondorioez guztiz kontziente dira munduko eliteak, eta

6. https://www.climatica.lamarea.com/limites-planetarios-cuantificados-los-9/
7. Bukatu berri den COP28an ikusi dira kontraesan horiek. Herrialde ezberdinen arteko tentsio eta negoziaketen ondorioz erregai fosilak alboratzeko bidean eman beharreko pausoak moteldu dira.

horien kudeaketa ikuspegi sekuritario eta militarraren bidez egingo dute. Horren adibide argia da NATOk onartu duen azken kontzeptu estrategikoan migrazioaren eta energiaren gaia ere barnebiltzea.

Laburbilduz, munduko ordenaren berdefinizo prozesuak trantsizio ekologikoak hartzen duen forma determinatuko du; eta kontrara, krisi ekosozialak goitik behera determinatuko du nazioarteko politika datozen urteetan.



Roberto Stuckert, Wikimedia Commons

Ikusmira 2: BRICS
Hegoalde Globalerako ezinbesteko erreferentzia

BRIC akronimoa (Brasil, Errusia, India, Txina; 2010etik aurrera, Hegoafrikaren parte hartzearekin, BRICS bihurtu zen) Goldman Sach inbertsio bankuko analista batek asmatu zuen; 2050erako lehen lau herrialdeak munduko hazkunde ekonomikoan nagusi izango zirela aurreikusi zuen. Herrialde horietan inbertituko zuen inbertsio-funts bat sortzeko asmakizuna izan zen. Funts horrek 2014ra arte iraun zuen, krisi ekonomikoak eta petrolioaren prezio baxuek erakargarritasuna galtzea eta ixtea eragin zuten arte.

2006ko irailera arte, Vladimir Putinen ekimenez eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren bilera aprobetxatuz, lehen aldiz bildu ziren lau herrialdeetako ordezkariak, eta lankidetza hedatzeko interesa agertu zuten. 2009n, Jekaterinburgon egin zen lau herrialdeetako lehen goi-bilera. Herrialde hauen arteko "elkarrizketa eta lankidetza sustatzea, modu inkrementalean, proaktiboan, pragmatikoan, irekian eta gardenean. BRIC herrialdeen arteko elkarrizketak eta lankidetzak sortzen

ari diren merkatu-ekonomien eta garapen-bidean dauden herrialdeen interes komunak zerbitzatzera ez ezik, bake iraunkorreko eta oparotasun komuneko mundu harmoniatsu bat eraikitzera ere bagaramatza". Dokumentuak munduko krisi finantzario eta ekonomikoari aurre egiteko moduei buruzko pertzepzio komuna zirriborratu zuen.

BRICSeko kideen arteko harremanak Nazio Batuen Gutunean, oro har onartutako nazioarteko zuzenbidearen printzipio eta arauetan, eta herrialde kideek 2011ko goi-bileran adostutako printzipio hauetan oinarritzen dira: irekitasuna, pragmatismoa, elkartasuna, izaera ez-blokea eta hirugarrenekiko neutraltasuna.

BRICSen lana 2010etik egiten diren urteko goi-bileretan onartutako ekintza-planetan oinarritzen da.

Libiaren, Siriaren eta Afganistanen eta Irango programa nuklearraren inguruko arazori buruzko jarrera bateratua landu duten arren, ahalegin nagusiak finantza eta ekonomia arloetara bideratu dira, besteak beste, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren erreforma-proposamenetara -NDFri behar adina baliabide mobilizatu ahal izateko neurriak, krisiaren aurkako potentziala indartzeko-.

Era berean, elkarrekiko harremanen alderdi ekonomikoak eta finantzarioak landu dituzte, BRICSen Bankuen arteko Lankidetzarako Mekanismoaren sorrerarekin. Mekanismo horrek kreditu-lerroak zabaltzea, tokiko moneta trukatzeko ildoak, eta BRICS Trukeen Aliantza ezartzea aurreikusten du.

BRICS Goi Bilerak (Fortaleza eta Brasilia, 2014ko uztailaren 15ean eta 16an) emaitza oso garrantzitsua eman zuen. Aldeek Garapen Banku Berriari buruzko Akordioa eta BRICSen Kontingente Erreserbako Akordioa ezartzeko ltuna sinatu zituzten. Erakunde horiek 200 mila milioi dolar izango dituzte guztira.

Arlo horretan, azkenaldian asko hitz egin da dolarizazioaz eta dolarraren ordezko moneta posibleaz. Baina iritzi guztien arabera, BRICSen nahia, puntu horretan, elkarrekiko ordainketa-sistema bat eraikitzea da.

Txina eta Errusia gogotsu agertu dira BRICSen izaera zabaltzeko ideiarekin, haien eragin globala bultzatzeko. Hala ere, India eta Brasil eszeptikoak dira oraindik. India beldur da bere eragina ez ote den desagertuko, eta blokea Txinak menderatuko ote duen. Brasilek, berriz, kide berriak modu gardenean eta dauden kideen arteko adostasunean oinarrituta onartu beharko liratekeela argudiatu zuen.

Azkenean, aurtengo abuztuan Johannesburgon egin berri den goi-bileran, 2024ko urtarrilean sei kide berri sartzea dostu zuten: Argentina, Etiopia, Iran, Saudi Arabia, Egipto eta Arabiar Emirerri Batuak, eskaera formala egin zutenen artean (Indonesia, Venezuela, Kuba, Nigeria, Thailandia, Vietnam, besteak beste). Hala ere, beste hogei kide gehiagok ere interesa agertu dute modu informal batean, Hegoafrikako enbaxadore Anil Sooklalek baieztatu zuenez.

Taldearen aurrerapen nagusiak lankidetza ekonomikoaren esparruan gertatu badira ere, BRICSen eginkizun politikoa indartu egin da, Mendebaldeko demerituek egindako merituengatik baino gehiago. Kide berriak sartzeak perspektiba berriak irekitzen ditu, nahiz eta erabakiak adostasunez hartzeak, agian, aurrerapen handiak eta askoz ere arinagoak ez dituen ahalbidetuko, taldea erreferentzia bihurtu da Hegoalde globalerako.



Moayad Zaghdani, Unsplash

Ikusmira 3: Migrazioa “Oihanaren” eta “Iorategiaren” artean

Migrazioa gai nagusi bihurtu da iparraldeko herrialdeen agenda politikoan. Migrazioa kudeatzeko garaian, boteretik ikuspegi sekuritarioa gailendu da, mugak itxi eta migratzaileen etorrera eragozten saiatzen dena, eta, aldi berean, asilo-eskubidearen eskaerei traba handiagoak jartzen dizkiena. Horren ondorioz, gero eta pertsona gehiago bizi dira Ipar Atlantikoko herrialdeetan agiriak behar bezala bete gabe eta, ondorioz, eskubideak murriztuta.

Estatuaren ikuspegi hori elikatzen ari da eskuin muturra. Migratzaileen etorrera erabiltzen du gizarte industrialei eragiten dieten gaitz guztien justifikazio gisa. Horrela, eskuin muturraren diskurtso xenofoboak arrazakeria ezkutua areagotzen ari dira, gero eta esplizituagoa den diskriminazio bihurtzen ari dena. Mugak ixten eta hondamendi humanitarioak eragiten dituen ikuspegi sekuritario horren aurrean, ezkerrak ikuspegi humanitariotik aztertu du migrazioen gaia, pertsonek arrisku-egoe-

retatik ihes egiteko eta bizitza hobea bilatzeko duten eskubidea azpimarratuz. Ildo horretan, ezkerrak aldarrikatzen du pertsonek bide seguruak erabiliz migratzeko eskubidea dutela, eta ikuspegi sekuritarioa kritikatzen du, ez dituelako migratzaileen eskubideak errespetatzen.

Eztabaida horren atzean benetako oinarri objektibo bat dago. Nazioarteko migrazio-fluxuak hazi baino ez dira egin azken 40 urteetan. Nazio Batuen datuen arabera, 1980an munduko biztanleriaren % 2,3ri eragiten bazioten, 2000. urtean jada % 2,8koa zen, eta 2020an munduko biztanleriaren % 3,5era iritsi ziren1; hau da, urte horretan gutxienez 281 milioi pertsonak utzi zuten atzean beren bizilekua, bizimodu hobe baten bila. Kontabilitate horretan ez dira barne migrazioak sartzen, egoera eta herrialde jakin batzuetan –bereziki handiak badira– biztanleria-mugimendu handiak eragin ditzaketenak.

Migrazio-fluxu horiek guztiek arrazoi desberdinak dituzte, eta hiru multzo handitan laburbil daitezke: gerrak, arrazoi sozioekonomikoak eta ingurumen-hondamendiak. Azken horiek gero eta ohikoagoak dira, lehorteak eta uholdeak eragiten dituzten atmosferaren berotze globalaren ondorioz. Baina ez bakarrik. Lurrikarek, tsunamiek eta sumendiek lurralde handiak suntsitu ditzakete, eta, hondamendiei aurre egiteko azpiegitura nahikorik ez badute, jendez hustuta amaitu ohi dira. Ingurumen-hondamendien kasuan, azpiegiturak suntsitzea eta pertsonak hiltzea goseak eta gaixotasunek eragin ohi dute, jendea migratzera bultzatuz.

Gatazka belikoak dira mundu osoko milioika pertsonen desplazamenduak eragiten dituen beste arrazoi nagusietako bat. Ez dira beti esku-hartze irekiak tropa erregularren bidalketarekin; askotan, beste herrialde batzuen subiranotasunean sartzeak ezkutuko eragiketen bidez gauzatzen dira, estatu-kolpeak bultzatuz edo oposizioa armatuz eta finantzatuz. Batzuek helburu politikoak dituzte eta eskualde jakin batzuetan kontrolatzea dute helburu; beste batzuetan, berriz, interes ekonomikoak dira nagusi, oro har estrategikotzat jotzen diren lehengaien kontrola. Film estatubatuarretan esaten duten bezala, esku-hartze horiek guztiek «gure bizimodua» defendatu nahi dute. Beraz, migrazioaz eta migratzaileez hitz egiten denean ezin da alde batera utzi: esku-hartze militar guztiak lotuta daude beste herrien menderatzearekin eta harrapaketarekin; demokrazia koartada ideologiko hutsa da.

Esku-hartze horiek guztiak modu berean amaitu ohi dira: herrialdeak ezegonkortuz eta jendea gerratik ihes egitera behartuz. Ildo horretan, NATOren esku daude azken berrogei urteetan izan diren gatazka ugari tartean: Irak, Afganistan, Libia...

Azkenik, askoz ere sotilagoa den beste mekanismo bat: ekonomikoa. Merkataritza-askatasunean oinarrituta antolatuta dago, eta horrek abantaila izugarria ematen die mendebaldeko korporazio handiei; ez bakarrik lehengai merkeak lortzeko, baita Hegoaldeko herrialdeetan sortzen ari diren industriak hondoratzeko ere, euren ekonomia defendatzeko ezintasunagatik. Funtzionatzen duen ekoizpen bakarra Iparraldeko herrialdeetara bideratuta dagoena da. Globalizazioak kapital-mugimenduak ere askatu ditu, eta, horri esker, ia oztoporik gabe transferitu ahal zaizkie etekinak Iparraldeko herrialdeei. Horrela, mendebalde garatua lehengaien eta gainbalioen erauzgailu bihurtu da, eta Hego globaleko herrialdeak, berriz, merkatu huts bihurtu dira iparraldeko industria-produktuentzat.

Bestalde, Iparraldeak oso erregulazio zorrotzekin defendatzen ditu bere patenteak,

ekoizpen-prozesuak eta markak, jabetza-eskubide sakratuak erabiliz. Horrek erabateko mendekotasun-egoeran mantentzen du Hegoalde globala. Portaera kriminal horren adibide on bat AEBek eta EBk izan zuten jarrera COVID txertoen patenteak askatzearen kontura. MMAren barruan ahalegin guztiak zapuztu zituzten, milaka pertsona heriotza segurura behartuz.

Nazioarteko sistema sozioekonomiko horrek Hegoaldeko herrialde globalen edozein garapen autonomo eragozten du. Pobrezia kronikoaren egoerak osatzen du jende asko migratzera bultzatzen duen testuingurua. Ipar munduko herrialdeok sistema izugarri bidegabea baliatzen ari gara, eta sistema horrek eragiten ditu, neurri handi batean, migrazio-fluxu handiak. Ez da oso errealista sistema sozioekonomiko bidegabe horren erreforma sakonik gabe migrazioaren gaia bideratu nahi izatea, eta migrazioari buruzko eztabaida desitxuratzen baino ez du laguntzen.

Josep Borrellen ahozapiak argi utzi zuen nola ikusten duen Ipar globalak migrazioaren gaia. Iparraldea «lorategi» batean bizi da, eta «oihanak» mehatxatzen du etengabe, hau da, etengabeko mehatxua dator gainerako munduaren aldetik. Ahaztu egin zitzaion esatea lorategi hori hegoaldeko herrialde globalei lapurtzen zaien guztiarekin eraiki dela; eta, logikoa denez, herrialde horietako biztanleek ere lorategi batean bizi nahi dute. Gehiengoaren pobreziaren kontura batzuen ongizatea eraikitzen duen ikuspegia bidegabea eta jasanezina da. Horrela, jakina, migrazio-mugimenduen hazkundea are handiagoa izatea besterik ezin da espero. Guztiontzat bizigarria den mundua eraikitzeko ezinbestekoa da harreman bidegabe eta esplotatzaile horiek iraultzea.



Markus Spiske, Unsplash

Ikusmira 4: EB
Maizterren integrazio egitura

Aro aldaketa baten aurrean aurkitzen da mundua eta, testuinguru horretan, Europa ez da salbuespen bat. Globalizazioaren eta eredu heteropatriarkal-kapitalistaren aro baten amaieraren aurrean gaude; sistema multipolar baterantz doa mundua, eta larrialdi ekologikoak eta potentzia kolonialen arteko gerrek arrisku existentzial baten aurrean jartzen dute berau.

Ataka baten aurrean da Europa; behinola izan zena gogoan, etorkizunean izan nahi duenaren arakan. Testuinguru horretan, ez dago garbi zein den kontinenteak hartuko duen norabidea; bada, esate baterako, defendatzen duenik pandemiak eta Ukrainako gerrak ekarri zuten egoera sozial eta ekonomikoa kudeatzeko behin-behinean martxan jarritako politika ekonomikoa bertan behera uzteko ordua dela.

Zentzu horretan, murrizketen aro berri bat ireki daiteke. Izan ere, epe labur/ertain batean

aipatu krisiei aurre egiteko Europako Batasuneko herrialdeek orain arte jaso duten dirua itzultzeari ekin beharko diote. Herrialde bakoitzari ezarriko zaion neurri sorta oraino ezagutzeke bada ere, emantzat jo daiteke horien gastu publikoaren gaineko kontrola areagotu egingo dela, besteak beste, kontrol fiskalaren gaineko neurriak berreskuratuz. Hori guztia enpresa jakin batzuk inoizko etekin ekonomiko handienak lortu dituztenean.

Hori guztia testuinguru sozioekonomiko konplikatu batean: bizitzaren garestitze orokor baten erdian, non azken urteotako inflazio eta interes tasa handienak diren. Horrekin batera, nabaria da Batasuneko herrialdeetako zerbitzu publikoen desagerpena ere, zeina areagotu baino ez den egingo aurrez aipatutako austeritate politikak ezartzen badira. Eta ezin aipatu gabe utzi Batasuneko motor ekonomiko papera jokatzen duen Alemaniaren errealitate ekonomikoa, geldialdi betean sartua dagoena. Eta ondorioz, neurri fiskal gogorrak har ditzakeela, adibidez, gastu publikoaren kontrola areagotuz.

Era berean, nabarmena da Europako Batasunaren eta bere instituzio nagusien defizit demokratikoa ere. Izan ere, Europako Batzordeak bere gain hartu ditu kudeaketa ekonomikoari lotutako funtsezko tresnak; hala nola, gastu publikoaren gaineko kontrola, Next Generation edo Global Gateway bezalako funtsen norabidea eta kontrola, eta abar. Azken horien kasuan, gainera, multinazionalen aldeko kudeaketa bat egin dela ondoriozta daiteke, funtsak haien mesedetan bideratuz, doktrina neoliberala eta praktikaren arteko arrakala agerian utziz.

Batzordearekin batera, Europako Banku Zentralak ere egin du saiakerarik demokrazia pribatizatzeko. Interes tasekin egin moduan, politika ekonomikoari lotutako erabaki garrantzitsuak hartzen ditu horrek bere baitan. Alta, inflazioa baretu eta egonkortasun ekonomikoa bilatzea baino harago doa Banku Zentralaren saiakera; bere erabakiekin, inbertsioak eta enplegua baldintzatzen ditu, horretarako inolako eskumenik izan gabe. Hori guztia, gainera, azalpenak inori eman gabe.

Saltsa horren guztiaren erdian, noraezean dabilen erakunde bat bezala ageri da Europako Batasuna; krisian dago europar proiektua, kapital handien interesek erabat baldintzatuta. Irekitzen ari den egoera berrian bere tokia egiteko zailtasunak ditu elite europarrak; bere helburuen eta ahalmenen arteko desoreka gero eta handiagoa da. Esaterako, trantsizio ekologikoaren eremuan lidergoa hartu nahi du Europak nazioartean, horretarako beharrezkoak diren lehengaiak bere eskutan izan gabe eta produkzio eredua aldatu gabe.

Testuinguru horretan ageri dira ortzi-mugan datorren urteko europar hauteskundeak. Aipatu zita elektoralean gaur arte joko-zelai europarra arautu duten oinarrizko baldintzak alda daitezke: alde batetik, ardatz frantses-alemaniarrak pisua gal lezake ekialdeko ardatzaren mesedetan; bestetik, sozialdemokraten eta zentro eskuinaren arteko botere-oreka historikoa apur daiteke, azken horiek eskuin muturrarekin flirtean ibiltzeko izan dezaketen tentaldia medio. Izan ere, eskuin muturrak pisua irabaz lezake Batasunean zita elektoralaren ostean, botere-harreman logikan indarra irabaziz Batasuneko erakunde nagusiak osatzeko orduan.

SEGURTASUNA ETA KANPO POLITIKA


Maiz hitz egin da azken urteotan europar autonomia estrategikoaz, Ukrainako gerraren testuinguruan batik bat. Horrek, baina, aipatu autonomia estrategikoan sakontzeko baino gehiago, amets hori zapuzteko balio izan du. Izan ere, lozorroan sartua zen NATO berpiztu du Ukrainako gerrak, Europak autonomia estrategikoz jokatzea galaraziz.

Ukrainako gudan fronteen geldialdi bat antzematen da, eta negoziaketen bidea mantso doa. Bien bitartean, mendebaldearekiko eta, batez ere, NATOrekiko dependentzia absolutuan erori da Ukraina, horrek batez ere AEBen interesei erantzuten dien bitartean.

Autonomia estrategikoari dagokionez, NATOn adostutako gastu militarraren handitzeak beste ataka baten aurrean jarri du proiektu europarra. Bidegurutze horretan, Batasuneko herrialdeetako industria militarraren bateratze eta berrindartze baten aldeko apustua egin lezake Europak, edota AEBetako industria militarrarekiko dependentzia areagotu. Estrategia geopolitiko amankomun baten faltan, bigarren aukerak hartzen du pisu handiagoa.

Ukrainako gudaz gain, afrikar kontinentean ere sortu zaio arazorik Europari, bereziki, estatu frantsesari. Izan ere, orain arte kontrolpean zituen kolonia ohiak altxatzen hasi zaizkio Parisi. Niger eta Gabon dira azken erakusleak, baina aurretik izan ziren Mali, Ginea, Sudan eta Burkina Faso. Gertaera horiek agerian utzi dute NATOren baitan interes kontrajarriak existitzen direla.

Altxamendu horiek eta Europako Batasunak Afrika iparraldeko herrialdeekiko daukan estrategia sekuritarioak (Maroko, Aljeria, Tunisia, Libia) berebiziko eragina izan dezakete migrazio fluxuetan.



Bianca Ackermann, Unsplash

Ikusmira 5
Zein da estaturik gabeko nazioen papera nazioarteko ordenaren baitan?

II. Mundu Gerra ostean eraikitako nazioarteko ordena agorpen zantzuak erakusten ari dela esaten dugunean, adiera bat baino gehiagotan ulertu behar da baieztapena. Ezgai da aipatu ordena (Nazio Batuen Erakundea buru duela) gaur egungo erronkei bete-betean erantzuteko; izan munduaren luze-zabalean bakea sustatu eta mantentzeko, edo izan klima larrialdiari adarretatik heltzeko, esaterako.

Antzerakoa da testuinguru horretan estaturik gabeko nazioek bizi duten errealitatea. Bada nazioarteko ordena horretan behinola sutsuki aldarrikatua izan zen eskubide bat: herrien autodeterminazio eskubidea, hain zuzen. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean jasoa, herriek euren estatus politikoa libreki erabakitzea aldarrikatzen du, bai eta euren ekonomia, gizarte eta kulturaren garapena libreki bilatzea ere.

Historikoki, deskolonizazio prozesuen testuinguruan baliatu da autodeterminazio eskubidea, haren irakurketa hertsi eta estatiko bati bide emanez. Gaur egungo testuinguruan, baina, eta gurea bezalako prozesuei begira, apenas aldarrikatu du Nazio Batuen Erakundeak aipatu eskubidea gatazkak konpontzeko soluziobide gisa, estatu aspirazioa duten herrien nahi bati erantzuteko, arrazoi ezberdinengatik arrapos-turik ez emanez. Zentzu horretan ere, beraz, agortua ageri zaigu egungo markoa, nahi eta xede jakin batzuk kanalizatzeko gai ez dena.

Estaturik gabeko herriek, baina, badute zer ekarpen egin nazioarteko agertokian. Eskubide unibertsal bat izaki, balio demokratikoei hertsiki lotua dagoen eskubide bat da autodetermina-zioarena. Izan ere, zer demokratikoagoa nork bere etorkizun politikoa eta garapen sozial eta ekonomikoa libreki erabakitzea baino? Zentzu horretan, eta autoritarismoaren haizeak inda-rrez dabiltzan honetan, horren aurkako bul-kada bat eskaintzen dute bateko eta besteko mugimendu subiranistek.

Orokortasunetan erortzea akats bat izan ohi bada ere, bada mugimendu subiranista gehie-netan ildo nagusi bat: izan Euskal Herrian, Katalunian, Eskozian edo Irlandan, subiranis-moren izana aurrerakoia da. Agerian utzi du afera, esaterako, estatu espainiarreko haute-skundeen osteko xake partidak, zeinetan eskuin muturra botere-guneetatik aldendu eta gober-nu-akordio aurrerakoi bat osatzeko orduan ezinbesteko papera jokatu duten, besteak beste, euskal eta katalan indar subiranistek.

Bestelako logika politiko batzuei jarraiki, gauza bera esan daiteke Eskozia eta Irlandako kasuez ere. Progresismoak gidatzen du subiranismoa Eskozian, SNP eta Berdeen eskutik nagusiki. Ho-riek, oro har, Westminsterren nagusi den bloke kontserbadorearen aurkako euste-lana egiten dute mugaren iparraldean, gatazkatsuak suerta daitezkeen aferetan Londresek har-tutako bidearen kontrakoa proposatuz (izan migrazioaren edota klima aldaketaren aferan, esaterako). Irlandan, aldiz, uhartearen iparral-dean ikus dezakegu garbien subiranismoak (Sinn Feinek) mugimendu erreakzionarioen (DUP eta enparauen) aurka eraikitzen duen antagonismoa.

Klabe politikoei beste buelta bat emanez, antzeko ariketa bat egin daiteke Quebec, Korsika, Groenlandia, Faroe edo Kanakyren kasuetan ere. Ez da subiranismorik autorita-rismorik proposatzen duenik, ez eta politika publiko erreakzionariorik aldarrikatzen duenik herrialde horietan.


Nazioarteko ordenaren agorpen fase horre-tan, bada sortzen ari den agertoki berri horri begira zer aldarrikaturik ere. Gaur-gaurkoz, estatuak dira nazioarteko agertokian jokalari nagusiak, joko-arauak sortu eta aldatzen di-tuztenak, euren klubean nor sartzen den eta nor ez erabakitzen dutenak. Hala, nazioarte-ko ordena berriak estaturik gabeko nazioen aspirazioak/ nahiak aitortu eta bideratzeko erronka dauka zabalik parez pare.

Esaterako, bada zentzu horretan saiakera egin, baina gaizki planteaturiko ekimenik: Europako Eskualdeen Batzordea, adibidez. EBean estatu burujabeez beheitiko era-kundeei -hau da, eskualdeei, probintziei eta hiriei- ahotsa emateaz arduratzen den erakundea, aspirazio/nahi nazionalei bide emateko balio ez duena. Zentzu horretan, bada europar hauteskundeei begira estaturik gabeko nazioek mahaigaineratu dezaketen aldarri komun baterako aukerarik.

Izan ere, aurrez garatutako testuinguruan jo-katuko dira hauteskunde europarrak datorren

ekainean; nazioarteko ordenaren agorpen fase batean, eskuin muturrak haizea alde duela, autoritarismoaren oldarraldi betean. Gaur-gaurkoz, apenas dute esperantzarako tartetik egin daitezkeen iragarpenek, kontinenteko azken ziklo elektoralari so eginez gero bederen. Ahul ageri da ezkerra Europan, noraezean, garaiari pultsua hartu ezinean. Eta horren adibide baino ez dira Alemanian eta Grezian, hurrenez hurren, berriki pairatu dituzten zatiketak.

Badira, beraz, mugimendu subiranistek gaur-gaurkoz ordezkatzen dituzten bi elementu: demokratikoa, batetik, autoritarismoaren oldarraldi betean; eta esperantzarena, bestetik, ezkerrarentzako ilun ageri den agertoki baten aurrean.



Elena Mozhvilo, Unsplash

III. Bukatzeko, hainbat ideia

Mundu sisteman izaten ari den trantsizioak Euskal Herrian ere eragina du. Mundu globalean bizi gara eta instituzio politikoetan zein ekonomian, merkataritzan edo finantza instituzioetan hartzen diren erabakiek gure eguneroko bizitza baldintzatzen dute. Irakurketa honen hasieran galdera bat biraka izan dugula genioen: munduko gizateriarentzat eskubideak ugaritu al dira 2023. urtean? Testuan definitu dugun testuinguru belikoak eta gainerako larrialdiak ez gaituzte bultzatzen baiezko borobila esatera; haatik, uste dugu eskubide indibidual eta kolektiboaren aldeko borrokak artikulatzen ari direla, eta trantsizio garai ilun hauetan, eskubideak zabaltzeko iparrorratza zehazten dute. Izan ere, arlo horretan ere tximeleta baten hegalen mugimendua munduaren beste muturrean senti dezakegu.

Bukatzeko, eta ondorio gisa, azken ideia hauek azpimarratu nahi genituzke:

1. Nazioarteko ordenaren ardatza Asia-Pazifikora mugitu da, eta gaur egun nagusi den **hegemonia neoliberala gainbeheran dago**. Horrek munduko egiturazko trantsizioa ezaugarritu du. Euskal Herrian kontuan hartzeko faktorea dugu; gainera, txikiak gara eta iraganaldi/ trantsizio horrek eragin-gunetik urruntzen gaitu. Horrek dituen inplikazio ekonomiko eta geopolitikoekin, jakina baita sortzen ari diren politika hibridoek (merkataritza libreko politikak eta politika protekzionistak nahasten dira, globalizazio-politikak diru laguntza politikekin, lehen pentsatu ezina zena) ezker subiranismoaren politika publikoetan eragina izan dezaketela; eta historia bizkortzera, eraldatzera, arriskatzera behartuta dago. Nikos Skoutarisek dioen bezala, ez ditugu arazoak egokitu nahi, konpondu baizik.

2. **Testuinguru belikoak eta autoritarismoak eragin zuzena dute eguneroko bizitzan.** Eskubideen murrizketak, sekurokraziak eta beldurrak nagusi dira, baita balio atzerakoiak ere. Estereotipo nagusitik ateratzen dena, feministak, LGTBIQ+, migranteak, arrazializaturiko pertsonak bazterkeriaren jomugan jartzen dira, eta bizi den etorkizun petralaren pagaburu bilakatzen. Eskubideak ere ez dira unibertsalak, pribatuak baizik. Eta horrela, xenofobia ez da bakarrik jarrera bat; ideologia faxistoidea ere bada, kaleetan eta hainbat gobernutan presente dena eta hedatuz doana. “Distopia hemen dago”, oihukatzen dute Argentinan. Euskal Herrian ezker eraldatzaile eta feminismoa sendoa dagoenez, ultraeskuina ez da oso agerian. Baina bere balioen eta marko kulturalaren barneratzea jada senti daiteke.

3. Nahitaezko **eredu produktiboaren eraldaketa** behar dugu gure bizitzaren kontrola izateko eta klima larrialdiari aurre egiteko; horretarako ardatza trantsizio energetikoa izango da, erregai fosilak erretzetik energia berriztagarrien erabilerara igaro beharko garelako abiada bizian. Dena den, azpimarratzekoa da prozesu horretan erregai fosilen lobbyek, enpresa energetiko handiek izugarrizko pisua dutela eta trantsizio horren forma eta denborak determinatzen ari direla. Gure herrian ere, ezker subiranistari dagokio ausardiaz jokatzea. Trantsizio agenda zehaztuz, eta kontraesanak, zalantzak eta eztabaidak kudeatuz eta asumituz; erlojuaren kontrako lasterketan baikoaz.

4. **Estatu egiturak** behar ditugu gure herriaren beharrei erantzuteko, munduan ahotsa izateko. Baina, era berean, trantsizio biderako **hainbat eskalatako instituzionalizazio berria artikulatu** beharra dugu; eta horretan, herri burujabetza, herritik, herritarrekin eta herriarentzat eginbide demokratikoa sendotu beharra dugu.


iratzar
FUNDAZIOA